

## FUNTSEZKO JARUERAK

Lehenik, gure enpresan, nahi dugun produktuaren diseinua egingo dugu. Ondoren produktua Bilboko enpresa batek fabrikatuko du eta haiei ordainduko diegu. Lehen hilabetean, kolore eta diseinu ezberdineko 10 hortz garbigailu egingo ditugu proba moduan eta etekinetan baliatuko gara ondoren gehiago egiteko. Bezero bakoitzak aukeratuko du nolakoa nahi duen hortz garbigailua bere aho formaren eta erosotasunaren arabera. Bezeroek aukera izango dute gure dendan edota haien etxeetan produktua jasotzeko.

Arazo bat balego gure telefono zenbakia dutenez, deitu besterik ez dute egin beharko eta guk arazoari aurre egiten lagunduko diegu. Arazoa fabrikarena balitz, Bilbora bidaliko genuke baina disenuarena balitz guk konponduko genuke.

Webgunea gure kontrolpean dago, hau da, guk eramango ditugu aurrera promozio ezberdinak bai eta beherapenak.

Guk egingo ditugun atalak produktu honen diseinua, publizitatea, garraioa, kostuaren eta diruaren antolaketa eta bezeroekiko harremanak izango dira. Gu produktua garraiatzeaz arduratzen den enpresarekin kontaktuan jarri behar direnak izan arren, gero enpresa hau izango da garraiatzeaz arduratuko dena. Hortz garbigailuaren manufaktura, berriz, Bilboko fabrikak egingo du, eta bere esku utziko dugu produktua sortzeko prozesu guztia.

Nagusitasuna eta garrantzia, hortz garbigailuak egiteari emango diogu. Horregatik, irabazien zati handi bat fabrikara zuzenduko dugu.